

26/2014 Ebazpena, Uribe Eskualdeko zuzendari gerentearena, Zerbitzu-erakundeko II. Euskara Plana onartzen duena.

Osakidetza-Euskal Osasun Zerbitzuan euskararen erabilera normalizatzeko martxoaren 18ko 67/2003 Dekretuak finkatzen ditu Ente Publikoaren Euskara Plana arautuko duten oinarriak. Dekretu horretan zehaztutakoaren arabera, lehenengo plangintzaldia amaitu eta helburuen betetze-mailaren ebaluazioa eginda, helburu berriak ezarri eta beharrezkotzat jotzen diren egokitzapenak egiteko bidea irekitzen da.

Beraz, aipatu Dekretuaren 3. artikulua ezarritakoa betez, Osakidetza-Euskal Osasun Zerbitzuko Administrazio Kontseiluak 2013-2019 aldiko Euskara Plana onartu zuen 2013ko abenduaren 3ko Erabakiaren bidez. Erabaki horrek bigarren atalean ezartzen duenez, Zerbitzu-erakundeetako zuzendaritzek eurei dagozkien Euskararen Erabilera Normalizatzeko Planak edo Proiektuak onartu beharko dituzte, Plan Orokor horren zehaztapen gisa.

Erabakiak, bestalde, gogorarazten du Osakidetza-Ente Publikoaren Euskara Planaren helburu nagusia dela, herritarren hizkuntza-eskubideak babesteko aurrerapausoak emateaz gainera, pazientearekiko komunikazioaren kalitatea eta empatia hobetzea, giltzarri baitira zerbitzu asistentzialak ahalik eta onenak izan daitezen. Hori dela eta, Uribe Eskualdeko Euskara Planak herritarrari eskaintzen zaizkion zerbitzuak hobetzen lagundu behar du.

Aurrekoa betez eta, alde batetik, Euskadiko Antolamendu Sanitarioari buruzkoa den ekainaren 26ko 8/1997 Legeak eta, beste alde batetik, Osakidetza-Euskal Osasun Zerbitzuaren Estatutu Sozialak ezartzen dituen azaroaren 11ko 255/1997 Dekretuak emandako eskumenen arabera,

Resolución 26/2014, de la Directora Gerente de Comarca Uribe, por la que se aprueba el II Plan de Euskera de la Organización de Servicios.

El Decreto 67/2003, de 18 de marzo, de normalización del uso del euskera en Osakidetza-Servicio vasco de salud establece las bases que han de regular el Plan de Euskera del Ente Público. En aplicación de lo previsto en dicho Decreto, una vez finalizado el primer período de planificación y realizada la evaluación de cumplimiento de objetivos, se abre el camino a la formulación de nuevos objetivos y a las adecuaciones que se estimen necesarias, mediante la renovación del Plan de Euskera.

En cumplimiento de lo previsto el artículo 3 del citado Decreto, el Consejo de Administración de Osakidetza-Servicio Vasco de Salud aprobó, mediante Acuerdo del 3 de diciembre de 2013, el Plan de Euskera del período 2013-2019. Dicho Acuerdo establece en su apartado segundo que las Direcciones de las Organizaciones de Servicios aprobarán sus respectivos Planes o Proyectos de Normalización del Uso del Euskera, como concreción del mencionado Plan de Euskera general.

El Acuerdo subraya la importancia de tener presente que el Plan de Euskera del Ente Público tiene por objetivo general, además del necesario avance en la protección de los derechos lingüísticos de los ciudadanos, mejorar la calidad de la comunicación y la empatía con el paciente, como elementos claves de la óptima prestación asistencial. Por ello, el Plan de Euskera de esta Organización de Servicios ha de contribuir a la mejora de los servicios prestados al ciudadano.

En su virtud, y de conformidad con las atribuciones competenciales recogidas en la Ley 8/1997 de 26 de junio, de Ordenación Sanitaria de Euskadi y en el Decreto 255/1997, de 11 de noviembre, por el que se establecen los Estatutos Sociales del Ente Público Osakidetza-Servicio Vasco de Salud,

EBATZI DUT

Lehenengoa.- Uribe Eskualdeko 2013-2019 aldiko Euskara Plana onartzea, ebazpen honen eranskinetan jasotakoaren arabera.

Bigarrena.- Uribe Eskualdeko Zuzendaritza Taldeak Plan hau garatu, ezarri, exekutatu eta ebaluatzeko behar diren neurriak hartzea, eta, horrekin batera, onartutako eranskinetan jasotako neurrien exekuzio-prozesuaren koordinazioa eta jarraipena egitea.

Hirugarrena.- Uribe Eskualdeko Zuzendaritza Taldeak Osakidetza II. Euskara Plana onartu eta bere egiten du. Uribe Eskualdeak Osakidetza II. Euskara Planean jasotzen diren euskararen erabilera normalizatzeko irizpide eta neurri guztiak aplikatu eta garatzeko erabakia eta konpromisoa hartzen du, bere jarduera-esparruaren barruan eta dagokion izaera asistentziala eta ingurune soziolinguistikoa aintzat hartuta.

Laugarrena.- Plana Uribe Eskualdeko Intranetean argitaratzeko agintzea.

Azken xedapena

Zerbitzu-erakundeko 2013-2019 aldiko Euskara Plana onartzen duen Uribe Eskualdeko zuzendari gerentearen ebazpen honen aurka, gora jotzeko errekurtoa jarri ahal izango zaio Osakidetza-Euskal Osasun Zerbitzuko Administrazio Kontseiluari, hilabeteko epean, ebazpen hau zerbitzu-erakundeko iragarki-tauletan eta web-orrialdeetan argitaratu eta biharamunetik aurrera, Herri Administrazioen Araubide Juridikoaren eta Administrazio Prozedura Erkidearen azaroaren 26ko 30/1992 Legearen 114. eta hurrengo artikuluek ezarritakoarekin bat etorritz.

Getxon, 2014ko apirilaren 8an

RESUELVO

Primero.- Aprobar el Plan de Euskera de Comarca Uribe para el período 2013-2019, según lo contenido en los anexos de la presente Resolución.

Segundo.- La Dirección de Comarca Uribe adoptará las medidas oportunas para el desarrollo, implantación, ejecución y evaluación del Plan de Euskera. En este sentido, coordinará y realizará el seguimiento del proceso de ejecución de las medidas aprobadas en los anexos de dicho Plan.

Tercero.- La Dirección de Comarca Uribe acepta y asume el II Plan de Euskera de Osakidetza. Comarca Uribe tiene el compromiso de aplicar y desarrollar, dentro de su ámbito de actuación y conforme al carácter asistencial y al entorno sociolingüístico de la organización, todos los criterios y medidas de normalización del uso del euskera recogidos en el II Plan de Euskera de Osakidetza.

Cuarto.- Ordenar la publicación del Plan en la Intranet de Comarca Uribe.

Disposición final

Contra la presente Resolución del Director Gerente de Comarca Uribe, por la que se aprueba el Plan de Euskera para el período 2013-2019, podrá interponerse recurso de alzada ante el Consejo de Administración de Osakidetza-Servicio Vasco de Salud, en el plazo de un mes a partir del día siguiente al de su publicación en los tablones de anuncios y en las páginas web de la Organización de Servicios, de conformidad con el artículo 114 y siguientes de la Ley 30/1992, de 26 de noviembre, de Régimen Jurídico de las Administraciones Públicas y del Procedimiento Administrativo Común.

Getxo, a 8 de abril de 2014

IZPTA./FDO.: MARI LUZ MARQUÉS GONZÁLEZ



URIBEKO ESKUALDEA-GERENTZIA
GERENCIA-COMARCA DE URIBE

C/ Alango, 30
Tfno. 94 600 70 05
48992 GETXO

OSAKIDETZAKO URIBE ESKUALDEKO ZUZENDARI GERENTEA
DIRECTORA GERENTE DE COMARCA URIBE DE OSAKIDETZA



OSAKIDETZAREN II. EUSKARA PLANAREN I. ERANSKINA (2013-2019)

URIBE ESKUALDEA ZERBITZU-ERAKUNDEAN OSAKIDETZAREN II. EUSKARA PLANEN NORMALIZAZIO NEURRIAK: ERATZUKIZUNAK, ZEHAZTAPENAK ETA JARRAIPENA

Eranskin honetan jasotzen dira 2013ko abenduaren 3an Osakidetza Administrazio Kontseiluak onartutako Euskara Plan Orokorrean jasotzen diren neurrien zehaztapen eta egokitzapenak, Uribe Eskualdearen ezaugarriei egokituta.

- (1) Kargua / arduraduna / unitatea (neurria ezarri, garatu eta jarraipena egiteko)
- (2) Neurriak abian jartzeari buruzko zehaztapenak (neurriaren azalpen laburra, jardueren errenkada, komunikazioa, inplikaturako agenteak, aplikatzeko modua, ...)
- (3) Lortu beharreko helburuei eta lortzeko jarritako datai buruzko zehaztapenak
- (4) Neurrien jarraipena egiteari buruzko zehaztapenak: modua, maiztasuna, neurri zuzentzaileen ezarpena,...

1. KAPITULUA: IRUDIA ETA KOMUNIKAZIOA

Atala	Arduradunak (1)		Neurriak abian jartzeari buruzko zehaztapenak (2)	Helburuei eta lortzeko datai buruzko zehaztapenak	Jarraipena
	Zuzendaritza eskuduna	Kargua edo/eta arduraduna edo/eta unitatea			
1.1. Errotulazioa 1.2. Kartelak 1.3. Paper-gauzak	Ekonomiako zuzendaritza	Ekonomiako zuzendaria	-Uribe Eskualdeak <u>Errotulu, kartelak eta paper-gauzak arautzeko Protokoloa</u> eguneratuko du, Osakidetza Identitate Korporatiboaren Eskuliburua eta 2. Euskara Plana aintzat hartuz. Protokolo horrek jasoko du plangintzaldiaren lehenbiziko urtean gaztelera hutsean dauden edota euskaraz zuzen idatzita ez dauden errotulu, ohar eta kartel guztiak ele bitan eta zuzen idatzita egongo direla.	-Protokoloa indarrean jarri eta profesionalei jakinarazi: 2014ko ekainaren 30a. -2. Plangintzaldiko 1. azterketa: 2014ko uda.	-Errotulazioko protokoloa -Urtean behin egingo da errotulazio, kartel eta paper-gauzen azterketa.

1.4. Internet, Intranet eta sare sozialak 1.5. Aldizkariak eta buletinak 1.6. Iragarkiak, publizitatea eta kanpaina instituzionalak 1.7. Ekitaldi publikoak, jardunaldiak,...	Gerentzia	Gerentea	Uribe Eskualdeko <u>Komunikazio Planean</u> jasoko da komunikazioan euskarari emango zaion tratamendua: -<u>Internet eta intranet orriek</u> bi hizkuntza ofizialetan nabigatzeko aukera emango dute. -Interneteko menu eta eduki guztiak ele bitan egongo dira. -Intraneteko menu guztiak eta eduki nagusiak ele bitan egongo dira. -Eskualdeak profesionaleri zuzendutako <u>buletin-hilabetekaria</u> ele bitan argitaratzen jarraituko du Eskualdeak. Zuzentasuna eta egokitasuna bermatzeko argitaratu aurretik testuak Eskualdeko Euskara Zerbitzuak orraztu edo euskaratuko ditu. -Urtero buletin bitan gutxienez euskara-planaren egoeraren gaineko informazioa argitaratuko da. -Osasun Zentro bakoitza arduratuko da itxarongeletan euskarazko aldizkariak erabiltzaileen eskura jartzeaz: Osatuberri aldizkari korporatiboa eta Eskualdeko euskarazko hilabetekaria. -Bigarren plangintzaldi honetan, lehenbizikoan bezala, Eskualde honek euskararen erabilera bermatuko du <u>Ekitaldi publikoetan</u>: eskualdeko ekitaldi publikoetan zuzendaritzak ele bitan egingo ditu hitzaldiak; erdia gutxienez euskaraz izango da, eta ez da izango gaztelaraz esandakoaren errepikapena. Ekitaldiaren arabera hitzaldia euskara hutsean egin ahal izango da.	-Euskararen erabilera Komunikazio Planean txertatu eta komunikazioak burutzen dituzten profesionaleri jakinarazi: 2014ko abenduaren 31. -Edukien azterketa: 2014ko uda. -Zuzendaritzari begirako prestakuntza-beharra aztertuko da.	-Urtean behin egingo da Internet eta intraneteko edukien azterketa.
1.8. Agurrak eta lehenengo esaldiak paziente eta erabiltzaileei harrera egiterakoan 1.9. Megafonia eta erantzungailuak	Pertsonaleko Zuzendaritza Unitate-buruak	Pertsonaleko Zuzendaria Unitate-buruak	-Eskualdeak <u>Bi hizkuntza ofizialetan artatzeko protokoloa</u> eguneratuko du. Irizpideen artean ondokoak egongo dira: -Erabiltzaileei arreta-hizkuntza aukeratzeko erraztasunak ematea <u>Lehen hitza euskaraz</u> eginez. -Megafonia eta erantzungailuetako mezuak euskaraz eta gaztelaraz emango dira, ordena horretan.	-Protokoloa eguneratu eta unitate-buruei eman 2014ko maiatza. -Unitate-buruek jarraibideen berri eman profesionaleri: 2014ko maiatz-ekaina	-Jarraibideen betetze-mailaren jarraipen-neurriak adostu unitate-buruekin.

2. KAPITULUA: HARREMANAK

Atala	Arduradunak		Neurriak abian jartzeari buruzko zehaztapenak	Helburuei eta lortzeko datei buruzko zehaztapenak	Jarraipena
	Zuzendaritza eskuduna	Kargua edo/eta arduraduna edo/eta unitatea			
2.1. Paziente eta erabiltzaileekiko harremanak					
2.1.1. Ahozko harremanetan bi hizkuntza ofizialak erabiltzeko irizpideak	Zuzendaritza -taldea	Zuzendaritza -taldea	Paziente eta erabiltzaileekiko ahozko harremanetan, euskara edo gaztelania erabiliko da, herritarrak lehenetsitako hizkuntzaren arabera. HARRERA UNITATEAK: eskualde honek bermatuko du bere osasun zentro guztietako harreretan profesionalek herritarrek aukeratutako hizkuntzan artatuko dituztela azken hauek. Erabiltzaileei hizkuntza aukera errazteari begira, unitate hauetan lan jarraibideetan txertatuko dute lehenbiziko hitzak, agurrak edota galderak euskaraz egitea. UNITATE SANITARIOAK: eskualde honek bermatu egingo du herritarrek familia mediku, pediatra edo emagin elebiduna aukeratu ahal izatea. Eskaintza hau zentro guztietan bermatzen ez den bitartean, erabiltzaileei aukera emango zaie zentro hurbilenean aukeratzeko medikua, pediatra edo emagina.	-2014ko maiatz-ekaina -Unitate horietako profesionalek segurtasunez arta dezaten, lanposturako trebakuntza eskainiko zaie (eta beharrekoa balitz, birziklatzea)	Unitate programen ebaluazioak
2.1.2. Idatzizko harremanetan bi hizkuntza ofizialak erabiltzeko irizpideak	Zuzendaritza -taldea	Zuzendaritza -taldea	Eskualdeak paziente edo erabiltzaileei ematen dien dokumentazio guztia jaso, aztertu eta arian-arian normalizatuko du. Paziente eta erabiltzaileek egindako eskaera, kexa edota galderei, haiek idatzitako hizkuntzan emango zaie erantzuna.	Berriazko lan-taldea sortuko da lan hau burutzeko	Unitate programen ebaluazioa
2.1.3. Komunikazio telematikoetan bi hizkuntza ofizialak erabiltzeko irizpideak	Zuzendaritza -taldea	Zuzendaritza -taldea	Komunikazio telematikoetan aurrez aurreko eta telefono bidezko arretan erabiltzen diren irizpide berak erabiliko dira		Unitate programen ebaluazioa

2.1.4. Bi hizkuntza ofizialak erabiltzeko irizpideen berri ematea, aplikazioa eta jarraipena	Zuzendaritza -taldea	Zuzendaritza -taldea	Eskualdeko Euskara zerbitzuak Bi hizkuntza ofizialak erabiltzeko irizpideak jasotzen dituen Jarraibide-oria prestatuko du; Bezeroak artatzeko eremuko langile guztiek izan behar dute orri hori. Era berean irizpide horiek jasotzen dituen kartel bat egingo da. Batzar bidez irizpideak azalduko zaizkie unitate-buruei. Eskualdeko Unitate-buruek jarraibideak banatuko dituzte unitateko langileen artean, eta hizkuntza ofizialak erabiltzeko irizpideak azalduko dizkiete langileei. Irizpide horiek unitateko ohiko egitekoen artean txertatu behar dituzte (eta baita langile berriei ematen zaien prestakuntzan ere; langile berri horiei jarraibideak emango zaizkie, harrera eskuliburu/gutunarekin batera)	-Jarraibideak prestatu: 2014ko apirila. -Batzarra: 2014ko maiatza -Unitateburuek banatu/azaldu: 2014ko maiatz-ekaina.	Unitate programen ebaluazioa
2.2. Zerbitzu elebidunen eskaintza	Zuzendaritza -taldea	Zuzendaritza -taldea	Eskualde honek unitate guztien azterketa egingo du, zerbitzua ele bitan eskain dezaketen unitateak identifikatzeko. Era berean, aztertuko da mediku elebidun bakoitzaren lankide zuzena diren erizainak ere elebidunak diren. Osasun zentro bakoitzeko Bezeroak Artatzeko Eremuan zentroak ele bitan eskaintzen dituen zerbitzuen berri ematen duen kartela egongo da. Kartel horrek jasoko du zentro horretan euskaraz eskaintzen ez den zerbitzua gertuen dagoen osasun-zentroan eskura dezaketela (familia-mediku, pediatra eta emagina) -Profesional eta zerbitzu elebidunen identifikazio sistema: Plangintzaldi honetan berriro galdetuko zaie profesionalen berri burua identifikatu nahi duten, profesional elebidunak identifikatuta egoteak euskararen erabileraren normalizazioan aurrera egiteko duen erabateko garrantzia nabarmenduz. Era berean, profesional berriei programaren berri emango zaie, eta egitasmoan parte hartzeko aukera emango zaie. Sustatuko da profesionalak "Euskaraz bai sano" kanpainako logotipoak sinadura elektronikoan txertatzea.	-Unitate guztien azterketa: 2014ko uda -Zerbitzu elebidunen kartelak jarri: 2014ko uda. -2014ko apirila Plangintzaldi osoan 2014ko abendua	-Unitate programen ebaluazioa -Euskarazko zerbitzua eskain dezaketen unitateen ebaluazioa -Kartelak -Identifikatutako profesionalen erregistroa Adierazleak: -Jasotako erantzun kopurua -Identifikatutako profesional kopurua -Identifikatutako profesionalen %

2.3. Pazienteen lehentasunezko hizkuntza ahozko komunikazioan	Zuzendaritza -taldea	Zuzendaritza -taldea	-Eskualdeko BAEko langileek euskaraz egingo dituzte agurrak eta lehenbiziko hitzak 2.1.1 puntuan jasota dagoen bezala. Euskaraz jarraitzen duten erabiltzaileei galdetuko diete ea beren datu pertsonaletan ahozko komunikazioetarako lehentasunezko hizkuntza erantsi nahi duten. Baietz erantzunez gero, hizkuntza hori zein den galdetuko zaie.	-2014ko abendua	-Unitate programen ebaluazioa
2.6. Enpresa hornitzaile, finantza-erakunde, administrazio, organo kolegiatuekiko,... harremanak	Zuzendaritza -taldea	Zuzendaritza -taldea	-Hornitzaile, finantza-erakunde... elebidunak antzemateari begira, sustatuko da erakunde horiekin guztiekin harremanak dituzten langileak identifikatuta egotea (profesional eta zerbitzu elebidunen identifikazio-programa): arropan jartzekoa, mahai gainean jartzekoa eta sinadura elektronikoan jartzekoa.	-2014ko abendua	-Arreta elebidunerako gaitasuna duten eta identifikatuta dauden profesional kopurua
2.7. Kontrataturako zerbitzu eta erositako produktuei buruzko hizkuntza-irizpideak	Zuzendaritza -taldea	Zuzendaritza -taldea	Hizkuntza-baldintzak txertatu zerbitzu-kontratuetan.	-2014ko abendua	-Hizkuntza-baldintzak txertatu diren ala ez ebaluatu. -Kontrataturako enpresek hizkuntza-baldintzak betetzen dituzten aztertu eta jarraipena egin.

3. KAPITULUA: BARNE-HARREMANAK

Atala	Arduradunak		Neurriak abian jartzeari buruzko zehaztapenak	Helburuei eta lortzeko datai buruzko zehaztapenak	Jarraipena
	Zuzendaritza eskuduna	Kargua edo/eta arduraduna edo/eta unitatea			
3.1. Lan-esparruko hizkuntza-paisaia	Ekonomia Zuzendaritza	Ekonomia zuzendaria	<u>Errotulu, kartelak eta paper-gauzak arautzeko Protokoloak</u> lan-esparruko hizkuntza-paisaiari ere eragingo dio; horrela, lan-esparruko ondoko osagaiekin, jendaurrekoekin bezala jokatu da (ele bitan egongo dira denak Osakidetzako Identifikazio Grafiko Korporatiboa betez): -Segurtasunari, lan-osasunari eta ingurumenari lotutako errotulazioa. -Makina eta ekipamenduetako idazkunak eta funtzionamendu-mezuak (inprimagailu, fotokopiagailu, kafe-janari makinak, osasun-asistentziako tresnak). Horiek erosi edo alokatzerakoan, irizpide horiek betetzea kontuan hartuko da.	-Plangintzaldiaren lehenbiziko urtean egingo den azterketan, lan-esparruko osagai horiek guztiak ere kontuan hartuko dira.	-Urtean behin egingo den azterketan, osagai horiek guztiak ere aztertuko dira.
3.2.- Giza baliabideak					
3.2.1. Langileekiko harremanak	Pertsonaleko Zuzendaritza	Pertsonaleko zuzendaria	Eskualde honek ahalegin berezia egingo du langileekiko harremanak langileek lehenetsitako hizkuntzan izan daitezen.	-Plangintzaldi osoan	Unitate programen ebaluazioa
3.2.2. Langileen lehentasunezko hizkuntza	Pertsonaleko Zuzendaritza	Pertsonaleko zuzendaria	-Horretarako lehenbiziko urratsa langileen lehentasunezko hizkuntza jasotzea izango da. -Pertsonal sailak unitate programa izango du (baita berriazko prestakuntza-programa ere). -Plangintzaren lehenbiziko urtean Sailak profesionalei bidaltzen dizkien agiri-mota guztiak jasoko dira eta eredu bateratuak normalizatuko dira, eta langileek berriazko prestakuntza jasoko dute beraiek bete beharreko eremuak euskaraz ere betetzeari begira. -Pertsonal saileko profesionalen lehentasunezko hizkuntza euskara duten langileen zerrenda izango dute eta ahalegin berezia egingo da profesional horien hizkuntza eskubideak bermatzeko.	-Langileen lehentasunezko hizkuntza: 2014ko uda -Unitate programa: 2014ko abendua -Profesionalen zerrenda: 2014ko abendua	-Unitate programaren ebaluazioa. -Normalizatutako agiriak. -Erregistroa eta eguneratzea.

3.2.3 Langile eta egoiliar berrien harrera	Pertsonaleko Zuzendaritza Unitate-buruak	Pertsonaleko zuzendaria Unitate-buruak	-Langile eta egoiliar berri gehienak elebidunak izango dira aurrerantz; Eskualdeak, harrerak duen garrantziaz kontziente, ahalegin berezia egingo du harrera profesionalak aukeratutako hizkuntzan egiteko. -Harrera-eskuliburua bi hizkuntza ofizialetan idatzita egongo da, eta heritarren hizkuntza eskubideak jasoko ditu, baita profesionalen hizkuntza eskubideak ere. Eskuliburuan profesionalak euskara gaitasuna hobetzeko eskualdeak eskaintzen dituen aukeren berri eta profesional elebidunak identifikatzeko programaren berri emango zaie, eta eskuliburuarekin batera hizkuntza ofizialak erabiltzeko irizpideak jasotzen dituen agiria emango zaie.	Pertsonaleko unitate programan txertatu	Unitate programaren bidezko jarraipena
3.3. Prestakuntza	Pertsonaleko Zuzendaritza	Pertsonaleko zuzendaria	Eskualde honek plangintzaldiaren lehenbiziko urtean profesionalen prestakuntza beharrak jasoko ditu (galdetegi edo elkarizketa bidez): -Euskalduntze-alfabetatzea hurrengo HE egiaztatzeko; -Birziklatzea, egiaztatutako HE finkatzeko; -Ahozko jariora hobetzeko ikastaroak; -Lanposturako trebakuntza Prestakuntza beharrak jasotzeko galdetegi horretan profesionalak espresuki galdetuko zaie euskaraz jaso nahi duten: -Korporazioak eskaintzen duen etengabeko prestakuntza -Zerbitzu Erakundeak antolatutako prestakuntza espezifikoak	Euskara teknikaria Eskualdeko Prestakuntza-batzordearen partaide izango da: 2014ko urtarila Prestakuntza beharren azterketa: 2014ko apirila	Euskara Prestakuntza-plana
3.3.1. <u>Etengabeko prestakuntza</u> korporatiboa	Pertsonaleko Zuzendaritza	Pertsonaleko zuzendaria	-Galdetegian jasotako emaitzen arabera jokatu du Eskualdeak. Horrela, etengabeko prestakuntzaren euskarazko eskaintza, prestakuntza hori euskaraz jaso nahi dutela adierazi duten profesionalen ehunekora hurbilduz joango da (eta hirugarren urterako, ehuneko horren erdira helduko da). -Galdetegiaren jasotako emaitzak gorabehera, Eskualdeak prestakuntza mota hau euskaraz egitea sustatuko du, batez ere, 1. Lehenbaitzeko unitateetan, baina baita 2. Lehenbaitzekoetan ere.	2014-2016	Euskarazko eskaintzaren ehunekoak
3.3.2. Zerbitzu-erakundeek antolatutako <u>prestakuntza espezifikoak</u>	Pertsonaleko Zuzendaritza	Pertsonaleko zuzendaria	Galdetegian jasotako emaitzen arabera jokatu du Eskualdeak. Horrela, etengabeko prestakuntzaren euskarazko eskaintza, prestakuntza hori euskaraz jaso nahi dutela adierazi duten profesionalen ehunekora hurbilduz joango da (eta hirugarren urterako, ehuneko horren erdira helduko da).	2014-2016	Euskarazko eskaintzaren ehunekoak

			Galdetegiotan jasotako emaitzak gorabehera, Eskualdeak prestakuntza mota hau euskaraz egitea sustatuko du, batez ere, 1. Lehenetasuneko unitateetan, baina baita 2. Lehenetasunekoetan ere.		
3.3.3. Mediku eta erizain egoiliarren prestakuntza	Pertsonaleko Medikuntza Erizaintza Zuzendaritzak	Pertsonaleko Erizaintzako zuzendariak Zuzendari Medikoa	Tutoreak esleitzerakoan kontuan hartuko da egoiliarren lehenetasuneko hizkuntza; unibertsitate ikasketak euskaraz burutu dituztenek prestakuntza esukaraz jarraitzeko aukera izan dezaten.	Plangintzaldi osoan	Tutore elebidunen esleipen % / tutore elebidun eskaerak
3.3.4. Euskalduntzeko eta alfabetatzeko ikastaroak	Pertsonaleko Zuzendaritza	Pertsonaleko zuzendaria	-Eskualdeak euskalduntze eta alfabetatze eskaintza korporatiboarekin jarraituko du, orain arte bezala. -Planak ezartzen dituen helburuak betetzeari begira, eskualdeak aztertuko du eskaintza korporatibo hori handitzea (ez ohiko laguntzak ordu kreditua agortuta duten langileei, homologatuta ez dauden ikastaroak egiteko laguntzak: euskaltegiek eskaintzen dituzten mintzamen moduluak, etab.) -Era berean, beste euskalduntze modulu edota erritmo batzuk aztertuko ditu: hilabeteko liberazioak udako ikastaroetarako, etab.) -Horrelako ikastaroak sustatuko dira lanpostuko HE egiaztatu duten profesionalak goragoko bat egiaztatu dezaten.	Plangintzaldi osoan	-Ikastaroen eskaintza. -Parte hartu duten profesionalak -HE egiaztapena -Profesionalek ikastaroez egindako balorazioa
3.3.5. Hizkuntza hobetzeko beste ikastaro batzuk	Pertsonaleko Zuzendaritza	Pertsonaleko zuzendaria	Eskualdeak mota honetako ikastaroak egiteko aukera emango die, galdetegian edo elkarrizketan ikastaro jakin hori eskatu duten langileei. Taldeko lekuak mugatuta egonez gero, lehenetasuna izango dute identifikatuta dauden profesionalak.	Plangintzaldi osoan	-Eskaintako ikastaroak -Parte hartu duten profesionalak
3.4. Euskaraz lan egiteko trebakuntza	Pertsonaleko Zuzendaritza	Pertsonaleko zuzendaria	Eskualdeak mota honetako ikastaroak egiteko aukera emango die, galdetegian edo elkarrizketan ikastaro jakin hori eskatu duten langileei. Taldeko lekuak mugatuta egonez gero, lehenetasuna izango dute identifikatuta dauden profesionalak.	Plangintzaldi osoan	-Eskaintako ikastaroak -Parte hartu duten profesionalak
3.5. Baliabide informatikoak	Pertsonaleko Zuzendaritza	Pertsonaleko zuzendaria	Eskualdeak jakinarazi egingo die langileei Ofimatika euskaraz jartzeko aukera dutela. Prestakuntza eskainiko zaie behar duten langileei.	Plangintzaldi osoan	-Jakinarazpena. -Office paketea euskaraz jartzen duten profesional kopurua

3.6. Komunikazio horizontala eta bertikala					
3.6.1. Lan-hizkuntza	Pertsonaleko Zuzendaritza	Pertsonaleko zuzendaria	Unitate-programetan unitateko lan-hizkuntza ezarriko da. Arreta berezia jarriko da plangintzaldi honetan ahalik eta lehentasunezko unitate gehienetan (batez ere 1. Lehentasun espezifikoak duten horietan) euskara lan-hizkuntza izan dadin.	Plangintzaldi osoan	Euskara lan-hizkuntza ezarri duten unitate kopurua
3.6.2. Hizkuntza ofizialen erabilera bileretan	Pertsonaleko Zuzendaritza	Pertsonaleko zuzendaria	Euskararen ahozko eta idatzizko erabilera sustatu laneko batzarretan, hoberetxe-taldeetan eta batzordeetan	2015eko abendua Agiri-ereduak sortu: deialdia, akta, komunikazio elektronikoak	Euskararen idatzizko erabilaren neurketa deialdi, akta.. eta abarretan
3.6.3. Langileen arteko komunikazioan euskararen erabilera sustatzeko egitasmoak	Pertsonaleko Zuzendaritza	Pertsonaleko zuzendaria	Langileen arteko komunikazioan euskararen erabilera sustatzeko, Eskualde honek euskarazko prestakuntza talde naturalak eskainiko du; osasun zentro bereko eta lan-kategoria bereko profesionalak elkarrekin arituko dira euskara hobetzeko eta trebakuntza ikastaroetan. Aztertu egingo da talde horiei begirako jarduerak ludikoak egiteko aukera.	Plangintzaldi osoan	-Antolatutako ikastaroak / talde natural kopurua

4. KAPITULUA: HIZKUNTZA-KUDEAKETA

Atala	Arduradunak		Neurriak abian jartzeari buruzko zehaztapenak	Helburuei eta lortzeko datai buruzko zehaztapenak	Jarraipena
	Zuzendaritza eskuduna	Kargua edo/eta arduraduna edo/eta unitatea			
4.1. Hizkuntza-politika					
4.1.2. Aitzindaritza, estrategia eta zeharkakotasuna	Zuzendaritza taldea	Zuzendaritza taldea	Eskualde honetako Zuzendaritza Taldearen ardura da Euskara Plana garatzea. Zuzendaritza talde osoak hartuko du parte Euskara Plana Garatzeko Batzordean. Zuzendaritza taldearen Plan osoaren ardura orokorraz gain, Zuzendaritza bakoitzak ardura batzuk izango ditu Euskara Planean, hain zuzen ere, Eranskin honetan jasotzen direnak. Euskara Plana Eskualdeko Plan Estrategikoan eta Urtez urteko kudeaketa planetan txertatuko da. Euskara Planak komunikazio plana izango du	-Uribe Eskualdeko Euskara Plana onartu: 2014ko apirila -Euskara Plan Korporatiboaren aurkezpena zuzendaritza taldeari: 2014ko urtarila -Euskara Plan Korporatiboaren aurkezpena zuzendaritza batzordeari: 2014ko otsaila -Euskara Planaren Komunikazio plana onartu: 2014ko apirila -Eskualdeko Euskara Plana zuzendaritza batzordeari aurkeztu: 2014ko maiatza -Eskualdeko Euskara Plana eskualdeko profesionalei aurkeztu: 2014ko maiatza	Gerentearen Ebazpena
4.1.3. Hizkuntza-politikaren ebaluazioa (C atala)	Zuzendaritza taldea	Zuzendaritza taldea	-67/2003 Dekretuak ezarri bezala, plana indarrean sartu eta hiru urte igarota ebaluazio partziala egingo da, eta sei urte igarota amaierako ebaluazioa egingo da. -Eskualdea 2015 urtean aurkeztuko da Bikain ziurtagirira eta helburua tarteko maila lortzea izango da. -Eskualdeko urtez urteko kudeaketa planean euskara planaren gaineko adierazle batzuk jasoko dira eta urtero ebaluatuko dira. -Euskararen erabilera normalizatzeko helburu eta neurriak Programa Kontratuaren kalitate-betekizunen artean jasota daude. Urtero ebaluatuko dira Euskara Plan Korporatiboaren 4.1.2.e puntuan jasotako 12 adierazleak.	Urteroko ebaluazioak gorabehera, Eskualdeko kudeaketa planean, euskararen erabileraren normalizazio atalean jasotako programa zehatz eta neurriak ere ebaluatuko dira.	-Urteko Programa Kontratua -Eskualdeko Kudeaketa Planaren ebaluazioa -Bikain ziurtagiria (2015) -Ebaluazio partziala (2016) -Amaierako ebaluazioa (2019)

4.1.4. Hizkuntza- eskubideak lotutako erregistroa jarraipena	Hizkuntza- urratzeari kexen eta	Gerentzia	Gerentea	Hizkuntza-eskubideak urratzeari lotutako kexei dagokienez, honela jokatu da: Osasun zentroetan jasotzen diren erreklamazioak Gerenteari bidaliko zaizkio azken honek erantzun dezan. Elebide eta Behatokitik jasotako erreklamazioei ere gerenteak erantzungo die. Elebideri eskatuko zaio erreklamazioak Gerenteari zuzenean bidaltzeko (Behatokiak egiten duen bezala). Gerenteak bai Elebidera bai Behatokira bidalitako erantzunen kopia Erakunde zentralera bidaliko da. Erreklamazio horien erregistroa eta jarraipena egingo da.	Plangintzaldi osoan	-Jarraibideak. -Eskaera. -Erregistroa
4.2. Pertsonak		Pertsonaleko Zuzendaritza	Pertsonaleko zuzendaria	Eskualdeak ezarri egingo du euskara era sistematikoan erabiltzen duten eta eguneroko zereginetan euskararen erabilera eta normalizazioa nabarmen bultzatzen duten langile, zentro edo zerbitzu-erakundeak aintzatesteko sistema korporatiboa.	2015eko abendua	Aintzatespen-politika korporatiboa
4.3. Baliabideak						
4.3.1. Euskara Plana Garatzeko Batzordea		Zuzendaritza taldea	Zuzendaritza taldea	-Zuzendari gerentearen Ebazpen bidez, Euskara Plana Garatzeko Batzordea eratuko da. Batzordea lau hilabeterik behin batzartuko da. Sei hilabeterik behin Batzorde horrek interes taldeekin (ordezkari sindikalak, etab.) batzarra egingo du, Euskara planaren egoeraren berri emateko.	2014ko ekaina	Eratze akta Batzarren aktak.
4.3.2. Euskara Zerbitzu Teknikoa		Pertsonaleko Zuzendaritza	Pertsonaleko Zuzendaria	Euskara Zerbitzua eratuko da eta lanaren banaketa antolatuko. 3 lan-arlo bereiziko dira: -Planaren garapena (euskara teknikaria) -Testuen normalizazioa (itultzailea /itulpengintza enpresa) -Administrazioa (departamentuko laguntza administratiboa)	2014ko ekaina	Eratze akta.
4.4. Corpusaren kalitatea eta itzulpen-politika						
4.4.1. Kalitate- eta funtzionalitate-irizpideak idatzizko komunikazioetan		Pertsonaleko Zuzendaritza	Pertsonaleko Zuzendaria	Eskualde honek kalitatezko komunikazio idatziak sustatuko ditu, hau da, testu zuzenak, jatorrizkoak, egokiak eta argiak, egitura logiko eta diseinu zainduarekin, bere ulermena bermatzeko helburuz. Testuinguru horretan hizkuntzen funtzionaltasuna ere hartuko da kontuan.	Idatzizko komunikazioen kalitate-irizpideak Eskualdeko Komunikazio Planean txertatuko dira	Irizpideak Komunikazio Planean txertatzea
4.4.2. Itzulpenak		Pertsonaleko Zuzendaritza	Pertsonaleko Zuzendaria	Plangintzaldiaren lehenbiziko urtean Eskualde honek testuen idazketa eta itzulpena arautzen duen protokoloa landuko du. Protokoloa langileei jakinaraziko zaie, eta, gainera, testuak sortu eta itzulpenak behar izaten dituzten profesionalak ezagutu beharko dute.	2014ko abendua	Protokoloa landu eta komunikatu.
4.5. erabilera guneak	Euskararen sustatzeko	Pertsonaleko Zuzendaritza	Pertsonaleko Zuzendaria	Eskualde honek sumatzen dituen beharrianen eta profesionalen borondatearen arabera, euskararen erabilera areagotzeko jarduerak, lantaldeak ekitaldiak edo bestelako ekimenak garatzeko aukera aztertuko du.	Plangintzaldi osoan	Jarduerak martxan jartzea

5. KAPITULUA: HIZKUNTZA-ESKAKIZUNAK, LEHENTASUNAK ETA DERRIGORTASUN-DATAK

Atala	Arduradunak		Neurriak abian jartzeari buruzko zehaztapenak	Helburuei eta lortzeko datei buruzko zehaztapenak	Jarraipena
	Zuzendaritza eskuduna	Kargua edo/eta arduraduna edo/eta unitatea			
5.1. Lehentasunezko unitateak eta derrigortasun-datadun lanpostuen zerrenda	Pertsonaleko Zuzendaritza	Pertsonaleko zuzendaria	-Euskara planaren II. Eranskina bidaliko da Euskara Planarekin batera (I. Eranskina) II. Eranskinean eskualdeko egiturazko lanpostu guztiak jasota egongo dira, eta bertan jasoko dira II. Plangintzaldi honetan bete beharreko derrigortasun-daten gutxienekoa betetzeari begira, eskualdeko lanpostuetatik zeinek duten ezarrita derrigortasun data (orain artekoak eta II. Plana betetzeari begira ezarritakoak).	2014ko apirila	-II. ERANSKINA
5.2. Aldi-baterako kontrataziorako irizpideak lehentasunezko unitateetan	Pertsonaleko Zuzendaritza	Pertsonaleko zuzendaria	Eskualde honek Osakidetzako Mahai Sektorialean adostutako Kontratazio Akordioak jasotakoa beteko du.	Plangintzaldi osoan	Kontratazio Mahaiko Akordioa
5.3. Derrigortasun-datak ezartzea (derrigorrezkoak izan gabe, zerbitzu-erakunde bakoitzaren Euskara Planaren garapenaren testuinguruan kokatuak)	Pertsonaleko Zuzendaritza	Pertsonaleko zuzendaria	-Urtean bitan lanpostu-zerrendaren azterketa egingo da, derrigortasun berriak ezartzeari begira.	Plangintzaldi osoan	-II. ERANSKINA eguneratzea

ANEXO I DEL II PLAN DE EUSKERA DE OSAKIDETZA (2013-2019)

RESPONSABILIDADES, CONCRECIONES Y SEGUIMIENTO DE LAS MEDIDAS DE NORMALIZACIÓN DEL USO DEL EUSKERA DEL II PLAN DE EUSKERA DE OSAKIDETZA EN LA ORGANIZACIÓN DE SERVICIOS COMARCA URIBE

En el presente anexo se recogen las concreciones y adaptaciones de las medidas de normalización incluidas en el Plan General de Euskera de Osakidetza, aprobado por el Cjo de Admon de Osakidetza en 3 de diciembre de 2013, a las características de la Comarca Uribe.

- (1) Cargo / responsable / unidad para la implantación, desarrollo y seguimiento de la medida
